

Maitasunaz, mai(z)tasunez

KULTURA JARDUN ELKARTEAREN AMODIOZKO GUTUN LEHIAKETA

**Testua: Aitziber Aranburuzabala
Argazkiak: M.A. Elkoroberezibar
eta Jardun**

Edizio bakarra izan behar zen, eta 25.a da aurtengoa. Bergarako Jardun euskara elkartearen harribitxietako bat da Amodiozko Gutunen Lehiaketa. Gutunak eskatzen hasi ziren; SMSak jasotzea proposatu zuten 2003tik 2009ra bitartean; eta aurten, amodiozko esaldia bidaltzeko aukera zabaldu dute.

Urtero moduan, otsailaren 14an egingo dute sari banaketa, Irizar jauregian, 19:00etan.



Egunkarian irakurrita

Berrigara astekaria 100. zenbakira iristear zen 1993ko otsailan. Jardun elkarteak kudeatzen zuen garai hartan aldizkaria, eta “zenbaki esanguratsuen” aitzakian, jarduera bereziren bat antolatzea erabaki zuten. Migel Angel Elkoroberezibar Jardun elkarteo bazkideak egunkarian irakurri zuena kontatu zien kideei: “Veronan Julietari Amodiozko Gutuna Lehiaketak hiru milatik gora parte-hartzaile bildu zituela zioen berriak. Guk gurea egin genezakeela pentsatu, eta 245 gutun jaso genituen! Horrek segida merezi zuen, eta halaxe izan da gaur arte”.

Oier Araolaza eibartarrak jaso zuen lehenengo edizioan sari nagusia. Herriko ... *eta kitto!* euskara elkartearen bueltan sortu zuten Literatur taldeko kidea zen. Taldearentzako ariketa praktikoa iruditu zitzaielako bidali

25 lehiaketa, datutan

- **Guztira 2.732 gutun jaso dituzte 25 urtetan. Lehenengo edizioan -1993. urtean- izan zen kopururik altuena: 245.**
- **Emakumezkoak dira edizio guztietan gehien parte hartu dutenak, 1998an izan ezik.**
- **Gipuzkoatik jaso dituzte gutun gehienak. Hala ere, herrialde guztietako parte-hartzaileak dituzte; 1998an bost gutun jaso zituzten Ipar Euskal Herriak, orain arteko kopururik altuena.**
- **Postaz jasotzen zituzten 2000. arte guztiak, baina joera aldatu egin da; aurten, gutunen %4 bakarrik eroan ditu postariak.**
- **2003 eta 2009 bitartean, amodiozko 222 SMS mezu jaso zituzten.**
- **Aurtengo berrikuntza amodiozko esaldiak jasotzeko proposamena izan da; 41 jaso dituzte guztira.**

zituztela dio: “Elkarrizketak, irakurketa gomendioak, irakurraldiak eta bestelako letra-jolasetan ibiltzen ginen, inolako pretentsiorik gabe. Testuinguru hartan izan genuen Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketaren berri. Iruditu zitzaigun ariketa polita izan zitekeela gure taldearentzako. Gutun bana idatzi, eta hurrengo bileran irakurri genuen bakoitzak berea. Sekulako barreak egin genituen, eta ondorioztatu genuen kaskarrak zirela gutun guztiak, eta lehiaketa hori irabazi nahi zuenak zerbait hobea asmatu beharko zuela. Hala ere, eginak genituen, eta gurearen pareko euskara elkarte baten ekimen polita iruditu zitzaigunez, parte hartzea puzteko asmoz bidali genituen gutunak”.

Euskal kulturgintzan jarduten duten izen ezagun askok hartu dute parte: Bertol Arrieta, Uxue



Alberdi eta Patxi Zubizarretak, besteak beste; baina bestelako izen ezezagun asko ere azaleratu ditu Jardunen lehiaketak.

Etxekoek eta gazteek ere saria

Herritarren eta gazteen parte hartzea bultzatzeko asmoarekin banatzen dituzte sari bereziak. Herrikoentzako lehenengoa Ion Sanchezek jaso zuen. “Aranzadi ikastolan nenbilen garai hartan eta Ane Barruso tutoreak animatu ninduen parte hartzera. Nik baino hobeto idazten zutenak egongo zirela pentsatu nuen, eta, horregatik, itxura berezia ematea

pentsatu nuen. Haur batek bere gelakide bati idatzitakoa zen, haur baten idazkerarekin eta marrazkiekin. Eskuz idatzi nuen eta originala entregatu nuen kopiarik gorde barik. Pena! Geroago, beste hirutan irabazi nuen sari bera”, dio Sanchezek.

Epaileak ere, kategoriakoak

“Ehun lagun inguru izan dira”, dio urteetan epaimahaikide izan den Elkoroberezibarrek, eta zera gaineratu: bailarako idazleez gain, Pako Aristi, Josean Sagastizabal, Kirmen Uribe, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe... Bertsolariak ere hainbat: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Ainhoa Agirreazaldeg, Sustrai Colina... Eta musikariak ere asko: Mikel Markez, Amaia Zubiria, Mikel Urdangarin... Eta hirugarren ediziotik aurrera, Bergarako ikastetxeetako ikasleekin osatu dugu epaimahai gaztea. Eurek bai meritua!”

Aurreko orrialdean, Bergarako Ion Sanchez gutuna irakurtzen, 1997ko lehiaketan.

Orrialde honetan, txiki, gutunak jasotzen dituzten liburuak. Handi, 1996ko eta 1999ko lehiaketetako epaimahaikideak.

“Literatura taldekooi asko gustatu zitzaigun Jardunen lehiaketa”

OIER ARAOLAZA
LEHENENGO EDIZIOAREN IRABAZLEA

Oier Araolaza (Eibar, 1972) kazetari eta antropologoak eskuratu zuen lehenengo sari nagusia. Herriko literatura taldeko kideekin batera bidali zuen, “eskolako” ariketa moduan. Gogoan duzu idatzi zenuena?



Momentuan ñoño samarra atera zitzaidala pentsatu nuen. Metafora batekin jolas egin nuela gogoratzen dut, txalupa bat zegoela eta arraunean ari nintzela; baina gehiagorik ez. Gordetzen duzu oraindik? Ez dakit, karpeta zaharren baten izango da kopiarren bat, akaso. Originala bidali egin nuen. Ez zenuen berriz parte hartu. Ez, lehenengoa hobetzerik ez zegoen. Kar, kar, kar... Aitaren lumarekin idatzi zenuela kontatu digu Migel Angel Elkoroberezibarrek. Hark du oroimena! Halaxe da, bai. Urte batzuk lehenago aitak maitasun gutunak idazteko idazluma polit bat oparitu zidan; eta, purrustaka, herdoildu egingo zela esan nion. Baina, hara non, luma harekin idatzi nuen.